

TESTU LIBURUEN BIDEZ ZABALTZEN AL DITUGU SEXU-BALOREAK ?



EMAKUNDE
EMAKUNDEAREN AGINTU ERAGILEK
INSTITUTU EUSKALER ESKOLAR

HEZKUNTZA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



NON GAUDE?

Gizon eta emakumeak ez bereizteko hastapena sozialki onartuta eta aitortua dago eskubide bezela gure legedian, baina oraindik gaur ez dago Euskadin gauzatua.

EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeak bere 1991-94 Emakumeentzako ekintza positiborako plangintzan, aukera berdinak bultzatzeko zenbait neurri proposatzen ditu; eta baita Euskadin sexu alorrean dagoen bereizketari buruz euskal gizartea sensiberatzeko ere.

Horregatik liburuxka honek, Hezkuntzari buruzko ikerketa zabalago baten barruan kokaturik, sensibilitate hori lortzeko tresna izan nahi du.

Eskolak nahiz eta berdintasun helburuak aitortu, sexista ereduak zabaltzen jarraitzen du eta andereekiko jokaera desegokiak gauzatzen jarraitzen du. Hau eskolako eguneroko bizitzan nabaria da eta garbi agertzen da liburu testuetan.

Sexismoaren jarduerak eskolan esan nahi du honek ez duela baizik eta gizartean dagoen aurreritziak berritzen, neskeen eta mutilengan gaur egungo gizarteko erregelak eta baloreak sarrerazi besterik ez bait du egiten eskolak. Liburu testuetan ere bereizketa eredu haiek garbiki agertzen dira..

Baieztapen hauek larregi bezala ager daitezke zeren eta begi bistan ez bait da agertzen gure gizarteko ar-kutsu guztia eta aurkitzeko ikerketa sakona egin behar baita.


Nahiz eta kontzienteki heziketa sexista honen bultzatzaileak ez izan; beharrezkoa dugu ausnarketa sakon bat egitea arazo honi buruz, neska-mutilak hezitzean balore eta jarrera sexistak ustekabean irakatsi diezaizkiegulako. Lehenengo urratsa dugu aurreritzi sexista hauek liburuetan aurkitzea, geroz bidera ditzagun, jakinez umeen eta gaztetxoek liburuak direla balore, eredu eta pentsamolde sexistak zabaltzeko biderik egokienak.

ZERTARAKO LIBURUXKA HAU ?

Helburua da gurasoak eta irakaslegoa sensiberatzea eta testu liburuetan dauden aurreritzi sexistak topatzen ikasteko tresna bat izatea. Honetarako Emakundek bi ikerketen ondorioak argitaratzen ditu:

- "MASKULINO ETA FEMENINO ERROLAK EUSKARAZKO O.H.O.KO TESTU LIBURUETAN" EMAKUNDE/EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA, 1990 .
- "EREMU MASKULINO ETA FEMENINO O.H.O.KO TESTU LIBURUETAN." N. GALARRETA Y P. CAREAGA. KULTUR MINISTERITZA. EMAKUMEAREN INSTITUTOA, 1987.

Bi ikerketa hauetan agertzen dena deskribatu besterik ez da egiten, errealitatea egiaztatu, bestela desagertuta egongo litzatekeena agertarazi, horrela eskolak benetako berdintasunaren aurka doazen eragozpen guztiak desagertuzan



ZIPRISTIN 3. MAILAKO LIBURUARI DAGOKIO.

1. EUSKARAZKO TESTUEN ANALISIA

«MASKULINO ETA FEMENINO ERROLAK EUSKARAZKO O.H.O.KO
TESTU ETA IRAKURKETA LIBURUETAN»
EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea, 1.990.

Euskarazko testuen analisi-lan hau, gure Autonomi Elkartean egiten den lehenengoa da eta arazoaz kontziente izanik lanean aspalditik ari diren irakasle/andereño taldeek aditzera emandako beharrianari erantzuten dio.

Azterketan, hiru hizkuntz ereduetan, A. B. eta D.n, erabiltzen diren testuak aztertu dira, baina euskaraz sortuak baino ez; itzulpenik ez, beraz.

O.H.O.ko ziklo ezberdinetan (Hasieran, Erdikoan eta 2. Etaan) erabiltzen diren 12 testu liburu eta 7 irakurketa libururekin egin da lan. 4 argitaletxe ezberdinenak dira

B eta D ereduetatik Hizkuntza eta Gizartea hautatu dira eta A ereduan euskara asignatura. Hautaketa hau egiteko arrazoiak honako hauek izan dira: lengoaiaren bidez kanpoko elementuak eta erreferentziak hartuz gain, pertsona bakoitzak, nortasuna aberasten eta heltzen laguntzen duten bere banakotasun, sentimendu eta pentsamenduak komunikatzen dizkiela besteei.

Eta gizartearen bidez bakoitzak bizi duen gizartea interpretatu eta baloratzeko gakoak eskaintzen direla.

Analisi-unitatea pertsonaia da eta testu bakoitzean hiru esparru ezberdinetan aztertu da: irudiak, testuak eta ariketak, eta femenino, maskulino eta mugagabe bezala sailkatu dira.

Pertsonaia bakoitzean honako alderdi hauek aztertu dira:

- 1.1. Presentzia, nolako maiztasunaz agertzen diren.
- 1.2. Duen protagonismoa.
- 1.3. Zein espaziotan moldatzen den.
- 1.4. Aisi eta jolas ekintzak.
- 1.5. Lan-ekintza.
- 1.6. Etxe-ekintza.
- 1.7. Senidetasun-harremanak.

Eta guzti hori, sexu bataren eta bestearen arteko gonparaketak eginaz eta ezberdintasun esanguratsuenak hautemanaz.

Konklusio global eta orokortua honako hau da: sexu batari eta besteari ematen zaion tratamendua ezberdina dela eta emakumea beti gutxiesten dela.

Analizatutako atal bakoitzeko datu esanguratsuenak honako hauek dira.

1.1. Pertsonai-presentzia femenino/maskulinoa

Aztertu diren 1.558 pertsonaietatik, 411, %26,38 femeninoak dira, 940, %60,33 maskulinoak eta 207, %13,29 jenero mugagabeak.

	<i>Femen.</i>	<i>Maskul.</i>	<i>Mugagab.</i>	<i>Guztira</i>
Irudiak	258	624	76	958
Testua	116	250	80	446
Ariketak	37	66	51	154
<hr/>				
Guztiak kop.	411	940	207	1.558
%	26,38	60,33	13,29	100

PERTSONAIA FEMENINO, MASKULINO ETA MUGAGABEA Irudietan, testuan eta ariketetan




Pertsonaia maskulinoen kopurua femeninoena baino ia bider eta erdi gehiago da

Presentzia maskulinoaren aldeko soslai nabaria da, aurreko laukian egiazta daitekeen bezala.

1.2. Pertsonaiaren Protagonismoa

Pertsonaiaren garrantzia, berak duen protagonismoak mugatzen du: protagonismo nagusia, beste protagonista batekin banatutako protagonista edo bigarren mailako papera edo paper betegarria.

PERTSONAIA PROTAGONISTA




Protagonismo banatuan agertzen diren kasuetan, eredu maskulinoak %58,7a dira eta femeninoak %27a.

Gutziz esanguratsua da gainera ikustea nola doan jaitsiz protagonismo femenimoa hasiera ziklotik 2. etapara, mailaz igon ahala

Sarrien agertzen den protagonismo-mota banatua da, %82,9a; banakoa berriz, %27,1.

Protagonismo-motaren bat duten pertsonaien %60,4 maskulinoak dira eta %25,8 femeninoak.

PROTAGONISTA BANATUA



Sexu batari eta besteari eskaintzen zaizkion ereduak, ikusten denez, zeharo desberdinak dira. Horrela neskek eta mutilek, biek, joko dute mutilak hartzera protagonistatzat, bai ekimenei zein antolaketari dagokienetan, eta neskak 2. mailakotzat ikusiko dituzte, edo gehien ere protagonismo banatuan. Dagoen beste estereotipo bat, hauxe da



HIZKUNTZA 6. MAILA testu-liburukoa da

Hurrengo irudiak, protagonismo maskulinoa indartzeaz gain, ohiturak gizonezkoari erantsitako "gogorraren" papera eta emakumezkoari "ahularena" azpimaratzen du.




ZIPRISTIN 3. MAILA testu-liburukoa da.

1.3. Pertsonaiak agertzen diren espazioa

Pertsonaia maskulinoek, berdin haurrek zein nagusiek, pertsonaia femeninoek baino espazio gehiago dute lan edo jolas egiteko. Gainera, gehiago izateaz gain, kualitatiboki ere ezberdinak dira: lehenengo espazioak, zabalago, irekiago eta sozialagoak dira; bigarrenenak, ostera, txikiak, hertsiak eta famili inguruarekin zerikusi dutenak.

Pertsonaia maskulinoa agertzen diren 306 giro edo espaziotik, 272 (%88) irekiak dira (soro, hondartza, errepide, ...) edo gizarte-esparrukoak (bulego, tren, kale, ...) eta 34 (%11,1) famili ingurutik hurrekoak (etxea, denda, ...).

ESPAZIO MASKULINOAK



Pertsonaia femeninoak agertzen diren 135 espaziotik (gizonezkoen espazioaren erdia baino guttiago, hortaz), 93 (%68,9) irekia dira eta 42%31,1)famili inguruarekin zerikusi dutenak.

ESPAZIO FEMENINOAK



1.4. Aisi eta jolas ekintzak

Jolas ekintzetan gehien agertzen den pertsonaia ere maskulinoa da. Neskek eurek bakarrik egiten dituzten ekintzak gutti izateaz gain, dinamika guttikoak eta ekimen premina guttikoak dira; mutilek baino egiten ez dituztenak ordea, mota askotarikoak dira eta dinamismoa eta sormena dira euren ezaugarri.

Atal honetako konklusio esanguratsuenak, honako hauek dira:

- Aisi ekintzetako tratamendua, hala kalitatean nola kantitatean, beti da gizonezkoaren aldekoa.
- Gainera oraindik handiagoa da desberdintzapena, sexu bata eta bestea nagusi bezala adierazten direnean.
- Desberdintzapena, lehenengo kurtsoetik hasita agertzen den arren, gehituz doa eskol maila aurrera joan ahala.

Gizonezkoek 87 aisi ahalbide ezberdin eskaintzen zaizkie, eta eurretari bat baino ez da pasiboa, begiralea hain zuzen. Neskei, ordea, 45 baino ez zaizkie eskaintzen eta eurretatik 4 pasiboak dira. 132 ekintzetatik 87, hau da %65,9, mutilei eskaintzen zaizkie eta 45, %34,1 beraz, neskei.

AISI AHALBIDEAK



%65,9



%34,1


1.5. Lan-ekintza

Diskriminaziorik handiena atal honexetan detektatzen da. Gizonezkoak hainbat lanbide ezberdin ditu bere eskura; kategoria guztiak hartzen dituzten 78 lanbide hain zuzen.

Neskei lan-ekintza mugatuagoa eskaintzen zaie, hala kopuruari dagokionez (30) nola lanbide-motei dagokienez. Gainera liburuetan agertzen diren lanbide femeninoen ereduak, gehienak ez dira desiragarriak eskaintzen dituzten ekonomi eta gizarte eragingarrietatik begiratuta.

EREDU FEMENINO ETA MASKULINOKO LANBIDEAK

Agertzen diren 108 lanbideetatik 78 (%72,2) maskulino bezala agertzen dira eta 30 (%27,8) femenino bezala.



Desberdintzapen-maila handiena goiko mailetan agertzen da; hemen ekintza femeninoen kopurua ttikiagoa izateaz gain, funtsean dira maskulinoengandik ezberdinak.

Eredu hauek, batez ere OHoko azkenengo kurtsoetan dira arriskutsuak, baldin kontutan hartzen badugu OHO amaitzerakoan hartzen dela lanbide hautaketarekin zerikusi duen lehenengo erabakia.

Ondoan doazen irudiek atal honetan aipatu diren desberdintasunak hainbesten artean agerian jartzen dituztenetariko adibide bi dira.



ZUBIA 4. MAILA testu liburukoa da.




KUXKUX 4. MAILA testu liburukoa da.

1.6. Etxe-ekintza

Lehenengo mailetan bi sexuak agertzen dira etxe-ekintzak egiten, adinarekin zerikusirik izan gabe, baina desagertuz doa aurrera egin ahala.

Bestalde, emakume helduaren irudia etxe-lanetan «tekniko» bezala agertzen da: lan garrantzitsuenak berak egiten ditu (erraztu, harrikoa, erosketak eta janaria egin, ...) eta haurrek eta gizonezko helduek laguntza-lanak edo lan osagarriak egiten dituzte (landareak ureztatu, garbitutako ontziak lehortu, mahaia ipini, ...).



HIZKUNTZA 6. MAILA testu liburukoa da.

Agertzen diren lanak %50era daude banatuta bi sexuen artean, nahiz eta garrantzitsuenen %71,4 emakumeek egiten dituzten eta %28,6 gizonezkoek. Proportzioa alderantzizkoa da, baina pittin bat tikiagoa, lan osagarrien kasuan.

LAN GARRANTZITSUAK



LAN OSAGARRIAK



1.7. Senidetasun-harremanak

Ez dira uniformeak ziklo guztietan. Hasiera Zikloan familia nuklearrak agertzen dira. Senar-emazteen seme-alabekiko paperetan ez da nabari ezberdintasunik, bai ordea jarreretan, ama bihotzekoagoa delarik.

Erdi Zikloan eta 2. Etapan balio gehiago ematen zaie famili harremanei eta ama seme-alaben aholkulari eta laguntzaile errola betetzen agertzen da. Erdi zikloan 59 pertsonaia agertzen dira famili loturaren batekin, euretariko 32 femeninoak eta 27 maskulinoak direlarik.

Maskulinoen artean aita da gehien aipatzen den figura eta femeninoen artean, ama.

2. GAZTELANIAZKO TESTUEN ANALISIA

"EREMU MASKULINOA ETA FEMENINOA O.H.O.KO TESTU LIBURUETAN." Kultur Ministeritza. Emakumearen Institutua 1987.

Azterketa, 14 argitaletxe ezberdinetako OHOk 36 testu liburutan egin da.

Pertsonaia, irudietan, testuan eta gramatika-adibide eta ariketetan aztertu da.

Aztertutako alderdiak, honako hauek izan dira:

2.1- pertsonaiaren ezaugarriak.

2.2-protagonismoa.


2.3-Ogibide eta bizibideak.

2.1. Pertsonaien ezaugarriak

Agertu eta aztertutako 8.228 pertsonaien guztizkotik 4.562 hizkuntza arlokoak dira eta 3.666 Gizartekoak.

Euretariko 2.105 (%25,6) femeninoak dira eta 6.123 (%74,4) maskulinoak. Presentzia maskulinoa, bada, femeninoa baino praktikan hiru bider handiagoa da. Portzentai banaketa berdintua da hizkuntzan eta Gizartean.

PERTSONAI PRESENTZIA



Irudiei dagokienez, Hizkuntzaren arloan, presentzia zertxobait handiagoa du pertsonaia femeninoak Hasierako Zikloan, %32,8; baina guttitz doa adina gehituz doan heinean, Erdi Zikloan, %24,2 eta 2. Etopan, %23,8. Gizartean ez da agertzen aurrerapen hori.

HIZKUNTZAKO IRUDIAK



GIZARTEKO IRUDIAK



Eskolak, lehenengo mailatik bertatik markatzen du mundu femeninoari buruzko norakoa eta protagonista nagusitzat maskulinoak dituen mundu bat aurkitu eta ikastera bideratzen du apurka-apurka.

Maskulinoaren presentzia testuetan, irudietan baino %3 eta adibideetan baino %1,5 handiagoa da. Badirudi desproporzio handiago hau ematen dela hizkuntzan gehiago erabiltzen delako maskulinoak.

HIZKUNTZAKO TESTUA




HIZKUNTZAKO ARIKETAK



Gizartean pertsonaia femeninoen presentzia %16,3koa baino ez da, maskulinoena %83,7 den bitartean. Hasiera Zikloan baino ez du gaitzen batezbesteko hau.

PERTSONAIK TESTUETAN (Gizartean)




Hurrengo ziklotan, 6 kurtsotan zehar, emakumea %11,5etan baino ez da agertzen. Emaitza hauek aurrean izanik, nork hitz egin al du hezkuntza berdinkideaz?.

2.2. Pertsonaiaren protagonismoa


Pertsonaien protagonismoaren laburpen orokorrak adierazten du protagonismo nagusia duten 977 pertsonaiatik %22a femeninoak direla eta %78a maskulinoak. Portzentaia hauek 10 puntutan aldatzen dira protagonismoa banatua denean, %32,3 femeninoa eta %67,7 maskulinoa.

Oso adierazgarria da nola aurkezten den adineko emakumea protagonismo propiorik gabe.

PROTAGONISTA NAGUSIA



PROTAGONISTA BANATUA




2.3. Ogibide eta bizibideak

Lehenengo ezberdintasuna kopuruetan dago, 74 pertsonaia femenino (%14,8) eta 424 maskulino (%85,2) Hizkuntzan eta 45 (%15) eta 255 (%85) Gizartean.

Baina ez da guttiago esan guratsua bigarrena, bizibide maskulinoen eta femeninoen arteko barrietatean datzana alegia, kopuru hain ttikia izanik zeharo estereotipatuta daudelako; ardatza zerbitzuetan, merkataritzan eta laguntza estatusetan duten lanbideak dira.

EREDU MASKULINO ETA FEMENINOKO BIZIBIDEA



Eredu femeninoa berariaz diskriminatuago lanbidean agertzen da, emakumeari ahalbide aukera laburragoa eskaintzen zaiolako.

ONDORIOAK

Egindako azterketen emaitzek erakusten digute ezen, nahiz eta eskola mixtoa izan eta curriculuma neska eta mutil guztientzat espreski berdina, jenero-estereotipoak, igarri ere egin gabe sartu eta indartzen dituzten didaktika-baliabideak, kasu honetan testu eta irakurketa liburuak, erabiltzen jarraitzen dela.

Eskolak egiazko aukera-berdintasuna sexu batari eta besteari eskain diezaien, beste lan batzuren artean eskol testuetan, ikusi dugun bezala, oraindik dirauten eredu estereotipatu eta diskriminatzaileak ezabatu beharko dira

Eskolak bere buruari ezarri behar dion helburu premiazkoenatariko bat honako hau da: protagonista izatea jeneroen arteko berdintasun erreala ezartzerakoan, alegia.

Horretarako estereotipo sexista guztiak ezabatzea joko du, emakume eta nesken irudi positiboa sustatuko; errol posible guztietan aurkeztuko ditu eta dituzten gaitasun guztiak erabiltzen elkar ikus dezaten eta gainontzekoek ikus ditzaten bultzatuko eta, amaitzeko, ez du utziko diskriminatzaile den egoera bat ere pasatzen, nahiz eta erreal-erreal izan, aztertu, kritikatu eta hautabideak aurkitu gabe. Hau ez egiteak esan gura du desberdintasunak onartu egiten direla, inplizitoki baino ezpada ere, hau da: desberdintasuna indartzeko modu konkretu batetan.

